

Bidasoa Behere-
tik, Euskal He-
rrira. Aspaldiko
asmoa zuen
Antxeta irrati
komunitarioak
Lapurdi, Nafarroa Behere eta
Zuberoako eguneroko infor-
mazioa gainontzeko herrialde-
etara ere helaraztea, Euskal
Herriko zazpi lurraldeak hur-
biltzeko, baina proiektuak luze
jo du, oztopo ugari gaindituta,
gauzatu arte. Iragan abendua-
ren 1ean egin zuten uhinetako

jauzia eta abian da Antxeta2
Irratia Donostian, Bilbon, Gas-
teizen eta Iruñean.
Arabian, Bizkaian eta Gipuz-
koan legezko frekuentziak di-
tuen lehen irrati komunita-
rioa da Antxeta2; Nafarroan,
berriz, bigarrena. Edonola ere,
bere programazioa beste irrati
komunitarioekin elkarlanean
osatzen du: Euskal Irratie-
kin –Antxeta Ipar Euskal He-
rriko irrati federazioko kide
baita–, Arrosa Euskal Herriko
irrati libreen sarearekin eta

Radiokultura Internet bidezko
irradiarekin.
Informazioa euskaraz entzu-
teko eta «Euskal Herria bere
osotasunean» ezagutzeko au-
kera eskaintzen du irrati be-
rriak, Aitziber Zapirain Antxe-
ta Irratiko koordinatzaileak
dioenez.
**Abenduaren 1ean Euskal He-
rri osoan hasi zineten.**
Bai, baina, zehazte aldera, He-
go Euskal Herri osoan baino,
lurralde horietako hiriburue-

*«Lehentasuna eman
genion irrati
frekuentzien
mundua gehiago
euskalduntzeko
aukerari eta
pentsatu genuen
bazegoela publiko
bat Lapurdiko,
Nafarroa Behereko
eta Zuberoako
aktualitatea
jasotzeko gosez»*

tan. Historikoki, Antxeta Irra-
tia Entzun Ikus elkarteak eta
Pausu Media elkarteak sortu
zuten. Entzun Ikus elkarte
Gure Irratia da, azken batean,
Lapurdiko irrati historikoaren
kudeatzailea, eta hark Pausu
Mediarekin batera gogoeta bat
egin eta Bidasoa Beherean hu-
tsune bat zela ikusi zuen: eus-
kal hedabide bat sortzea, hain
zuzen, eta, irratigintzan ari zi-
renez, irrati elkarte euskaldun
bat sortzea. Horrela sortu zen
Antxeta Irratia, 2002. urtean.



«Informazioaren trataera zazpi probintzia biltzen dituen Euskal Herri euskaldun batean, beste modu batean egin behar da»

Handik zenbait urtera, 2012an, Patxi Lopez lehendakari zela, Gasteizko Gobernuak frekuentzia batzuk atera zituen lehiaketa batean eta Antxeta Irratiak pentsatu zuen, «zergatik ez eman jauzi bat?», betiere, kontuan hartuta deialdi hartara ez ginelarik nahi-ko genukeen baldintzetan aurkeztuko, ez baitzen irrati komunitarioentzako deialdia, pribatuentzako baizik. Baina guk lehentasuna eman genion irrati frekuentzien mundua gehiago euskalduntzeko aukerari eta horrekin batera pentsatu genuen Donostian baze- goela publiko bat Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zubero-ako aktualitatea jasotzeko go- sez. Horrela hasi zen gogoeta, frekuentzia lortu genuen arte.

Antxeta Irratiaren eduki as-ko Gure Irratia, Irulegiko Irratia, Xiberoko Boza eta Amikuze Irratiarekin parte- katuak dira, ezta?

Antxetak programazioaren %80 Euskal Irratiak Ipar Eus- kal Herriko irratiaren federazio-ko kideekin batera ematen du, eta, horrez gain, programazio lokala du.

Antxeta2 Irratiarekin beste hutsune bat betetzen saia- tzen ari zarete, Euskal Herri osoari zegokiona, ezta?

Bai. Ideia garatzeko jauzia egin genuen Bilbo, Gasteiz eta Iru- ñera, abenduaren 1ean gauzatu dena, eta azken batean progra- mazioarekin edo eskaintzen dugun zerbitzuarekin, Euskal Irratiekin, Arrosa sarearekin eta Radiokultura Internet bi- dezko irratiarekin elkarlanean, Antxeta2 Irratiaren programa- zioa osatzen dugu.

2012an aurkeztu zineten Gasteizko Gobernuaren

deialdira. Zer dela-eta luzatu da Antxeta2 Irratiaren sorre- ra hainbeste?

Arazoak izan ziren. Gasteizko Gobernuak frekuentziak eslei- tu zituen, baina gero atzera egin zuen. Donostiakoaz ari naiz, eta gero beste prozesu bat izan da. 2016an jaso ge- nuen prozesu hartan abiatu zen istorio haren behin betiko erantzuna, eta geroztik guk poliki-poliki aurrera egitea erabaki genuen.

Arrosa sareak eta, beraz, zuek ere, Hego Euskal He- rriko irrati komunitario guztien edo komunikazioa- ren hirugarren sektorearen egoera konpondu beharra aldarrikatzen du.

Bai. Arrosa Euskal Herrikoa da, baina badago mundu mai- lako erakunde bat, Amarc Ko- munitate Irratiaren Munduko Elkarte, eta bertako kide ere bada Antxeta aspaldi luzetik. Elkarre horren diskurtsoa gu- reganatu genuen, zeren hura entzun eta berehala esan ge- nuen: «Hori gu gara, guk egi- ten dugu hori». Hirugarren sektoreak herri komunikabi- deak biltzen ditu. Gu ez gara irrati pribatu bat, ez gara ira- bazi asmoko irrati pribatua, ez gara irrati kate publikoa, baina zerbitzu publiko bat es- kaintzen dugu, eta hori da gu- re izaera, ezaugarritzen gai- tuena, eta horregatik gara hirugarren sektorearen parte.

Irrati komunitario guztien legalizazioa aldarrikatzen duzue.

Euskaldun bezala, alde bate- tik, informazioa euskaraz jaso ahal izateko eskubidea ber- matzea aldarrikatzen dugu, eta, beste batetik, komunika- bideen sektorearen demokra- tizazioa. Badakigu frekuen-

tzien mundu horrek nola fun- tzionatzen duen ulertzea aski konplexua dela, baina guk esaten dugu bere konplexuta- sun horretan herri komuni- kabideei leku bat eman behar zaiela.

Hego Euskal Herrian 30 ko- munitate irrati daude.

Hori da, gainera Euskal He- rrian ezin ginen denak ber- din izan. Badago lege bat Ipa- rraldean eta beste bat Hegoaldean.

Ipar Euskal Herrian legalak dira herri irratiak aspaldi luzetik, ez?

Bai, Iparraldean, 80ko hamar- kadan, Mitterrand presidente zela, egoera berezi horrekin bukatu zuten eta *les radios pi- rates* esaten zietenak legeza- tu zituzten, Euskal Herrian irrati libre bezala ezagutzen direnak. Horrek baditu bere alde onak; izan ere, Estatuak laguntzen dizu; hala ere, irra- ti bat sortu eta abian jartzea ez da hain erraza. Baina legez arautua egoteak alde on gehiago ditu txarrak baino, nahiz eta gero baimen guztie- kin irrati bat sortzera iriste- rainoko prozesua luzea den.

Abiatu berri duzuen irratiak Lapurdiko, Nafarroa Behe- reko eta Zuberoako gaurko- tasunaren berri emango du Hego Euskal Herriko hiri- buruetan.

Bai, informazioa partekatu nahi dugu, Ipar Euskal Herri- tik Hegoaldera eramanez. Egia esan, terminologia hori ez zait gehiegi gustatzen, “ipar-hego”, alegia, baina bes- tela zaila da behar den bezala hori komunikatzea.

Eta, esan bezala, programa- zioa Arrosa sareko magazina- rekin eta Radiokulturako mu-

AITZIBER ZAPIRAIN

ANTXETA IRRATIKO KOORDINATZAILEA

Duela ilabetetsu abiatu zen Antxeta2

Irratia, Euskal Herriko zazpi lurraldeak

hurbiltzeko asmoz. Irratiaren

koordinatzaile Aitziber Zapi- rain irrati

berriaren nondik norakoez mintzatu zaigu.

Xabier Izaga Gonzalez

sikarekin osatzen dugu. Gutxi gorabehera programazio par- rila orokor bat osatu dugu, kalitatezko programazioa ukan ahal izateko, Euskal Herrian irratigintzan ari direne- kin elkarlanean.

«Ipar-hego» terminologia ez zaizula gustatzen esan duzu. Bien arteko muga ho- rrek pisu handia du?

Bai, bai, horregatik ahalegin- tzen gara hizkuntzaren erabi- lera egokia egiten; esate bate- rako, “mugaz gaindi” edo “ipar eta hego”, hain zuzen ere, saihesten. Baina, zoritxarrez, nik uste dut euskaldunok oso barneratua daukagula “ipar eta hego” hori, hitz egiteko momentuan behintzat, eta zer esanik ez kulturalki. Esandako erabilera egoki hori asko lan- du behar dugula uste dut; bes- tela, azkenean gu geu ari gara muga sortzen, edo indartzen.

Irrati mundua gero eta eus- kaldunagoa al da?

Horretan saiatzen gara. Nik esango nuke ohiturak aldatu beharko liratekeela. Alde bate- tik, jendeak irratian zapping egiteko ohitura galdua dauka- la uste dut. Irrati bat sintoni- zatzen dugu eta hor gelditzen gara, eta nik uste dut zapping egingo bagenu, ohartuko gi- natekeela oso presente dau- den irrati kate handi horieta- tik haratago lan duin eta ona egiten duten irrati asko dau- dela. Urola-Kostara bazoaz, hor dauzkazu Azkoitiko Kon- trakto Eztarrixo eta Zarautzen Arraio Irratia; Erreteriarra ba- zoaz, Radio Maria eta Euskadi Irratiaz aparte baduzu Zintzi- lik Irratia; bazoaz Gasteizera, eta hor Hala Bedi dago...

Kalitatezko eskaintza zaba- la, beraz.



Guillaume FAUVEAU | FOKU

Niri iruditzen zait, kontsumi- tzaile bezala ikusita, sekulako eskaintza dugula, eta hori lantzea neurri batean guri da- gokigu, zapping eginez, tele- bistan edo Youtuben egiten dugun bezala irratian ere egi- nez.

Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoaren zer-nolako ezagutza dago beste lurral- deetan, topikoetatik harata- go?

Nik esango nuke gaur egun, zoritxarrez, oso momentu

puntualetan iristen dela he- mengo berri, eta kasu askotan oso modu folklorikoan. Nire ustez, horrela egiteak ez du batere laguntzen nazio kon- tzientzia bultzatzeko eta Eus- kal Herria bere osotasunean ezagutarazteko norabidean. Gainera, esango nuke ezjakin- tasun hori alde bakarrekoa dela; alegia, iruditzen zait Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak beste hirurei dagokienez ezjakintasun han- dia daukatela eta alderantziz ez dela hori gertatzen, edo ez

da hain neurri handian gerta- tzen. Lapurdin, Nafarroa Be- herean eta Zuberoan oso ohi- koa da beste lurraldeetako informazioa jasotzea; lurral- de horietan, berriz, beste hi- ruretako informazioa jaso- tzea beti dago gertakari zehatz bati lotuta, eta askotan gertakari hori aldi berean Frantziari lotutakoa izaten da. Nire ustez, informazioa- ren trataera Euskal Herri eus- kaldun batean, zazpi probin- tzia biltzen dituen Euskal Herri batean, beste modu ba-

«Zapping egingo bagenu, ohartuko ginateke oso presente dauden irrati kate handi horietatik haratago lan duin eta ona egiten duten irrati asko daudela»



tean egin behar da. Badago ongi egiten duenik, e? Baina uste dut kontuz ibili behar dela horrekin.

Abendu hasieran hasi zen Antxeta2. Zer-nolako hasie- ra sumatu duzue?

Han-hemenka ongietorri me- zuak jaso ditugu. Nik uste dut jendeak baikor hartu duela. Horrelako irrati baten sorrera euskararen aldeko bultzada bat ere badela uste dut. Eta zenbat eta irrati gehiago, hainbat hobe, ez?